

**Erregimendu eta Udalbatzak Goi Aro  
Berriko Bizkaian: adiskidetasun eta  
aurkakotasunetarako topagune**  
*(Particular Assemblies and Parish Councils  
in the Early Modern Age in Biscay: a point  
of meeting for alliance and opposition)*

MIKEL ZABALA MONTOYA\*

**Laburpena:** Tokian tokiko agintek Aitzin Erregimengo gizartean oso eragin handia izan zuten. Izan ere, udal agintariei –orokorrean– eginkizun asko zegokizkien; lehen mailako epaiketak ezagutzea, ondasun amankomunak kudeatzea edota Batzar Nagusietan elkarrearen interesak defendatzea, besteak beste. Gai honen inguruko Goi Aro Berriko egoera nahiko ezezaguna dugu oraindik ere. Artikulu hau hutsune historiografiko hori betetzen saiatuko da Bizkaiko Jaureriaren kasua aztertzen. Zein motatako erakargarritasuna sortarazten zuten tokian tokiko agintek? Zeren arabera aukeratzen ziren? Nolakoak izan ziren bertako loturak? Zein eratakoak erresistentziak eta aurkakotasunak?

**HITZ-GILTZAK:** Tokian tokiko agintek. Gizarte gatazka. Bizkaia. XVI-XVII. mendeak.

---

\* Historian Doktorea (Deustuko Unibertsitatea).

**Resumen:** Los poderes locales gozaron de una gran influencia en la sociedad del Antiguo Régimen. De hecho, los cargohabientes locales disponían –en términos generales– de unas facultades muy amplias. Entre ellas se incluían conocer en primera instancia en causas judiciales, gestionar los bienes comunales o defender en Juntas Generales los intereses de la comunidad. Sin embargo, el tema nos resulta todavía hoy desconocido para la Alta Edad Moderna. Este artículo pretende cubrir ese vacío historiográfico abordando el caso del Señorío de Bizkaia. ¿Qué tipo de atracción generaban los poderes locales? ¿Con arreglo a qué criterios resultaban elegidos? ¿Cómo fueron los nexos de alianza entre ellos? ¿Cuáles las modalidades de resistencia y oposición?

**PALABRAS CLAVE:** Poderes locales. Conflictividad social. Bizkaia. Siglos XVI-XVII.

**Résumé:** Les pouvoirs locaux ont été très larges dans le société au cours de l’Ancien Régime. Les magistrats municipaux avaient généralement plusieurs fonctions à accomplir. Parmi toutes ces fonctions nous pouvons mentionner quelques-unes: juger en première instance, gérer les biens de la commune ou défendre les intérêts de la commune à la Assemblée Générale des communautés. Mais aujourd’hui on ne connaît pas la situation à la première Époque Moderne. Cet article cherche couvrir la vacance historiographique par l’étude du cas de la Biscaye. Quel été l’attraction des pouvoirs locaux dans la communauté? Comment ont élu ces représentants? Quels étaient les alliances qui avait parmi les élus? Et les motifs pour s’affronter?

**MOTS CLÉS:** Pouvoirs locaux. Conflit social. Biscaye. XVIIe-XVIIIe siècles.

**Abstract:** Local power had a great influence on society during the Ancient Regime. In fact, local magistrates’ competence was generally large. It usually included such affairs as judging in the first instance, managing common lands and goods or defending local interest in General Assemblies. Anyway, we don’t know yet the real situation in the Early Modern Age. This article tries to cover this lack by the study of the case of Biscay. Which kind of attraction did local power produce? Which rules were there to elect them? What sort of alliance was there between all of them? What about resistance and opposition?

**KEY WORDS:** Local power. Social conflict. Biscay. 16th and 17th Centuries.

## 1. Sarrera

Aro Berriko Estatuaren sorreraren inguruan eratutako literaturak kontra-koa ematen badu ere, tokian tokiko aginteak oso garrantzi handikoak izan ziren Aitzinako Erregimenean zehar<sup>1</sup>. Azken batez, gizabanakoen mugikortasunaren murriztapenak normalean eginkizun gehienak udalerrriaren inguruan betetzera behartzen zuen. Dena dela, oso bestelako testuinguru batetan, euskal erakundeen funtzioek –tokian tokiko aginteek ere barne– eztabaida sutua sortarazi zuten aspalditik euskal historiografian<sup>2</sup>, arazo eta galdera askori erantzunik eman gabe (funtsezko hainbat itaun planteatu ere ez). Azkenengo urteetan tokiko historiazko ikerketek susperraldi handia izan dute<sup>3</sup>. Hala eta guztiz ere, hutsune nabarmenak gelditzen dira oraindik ere alor honetan. Besteak beste, Goi Aro Berriko tokiko aginteen analisia<sup>4</sup>. Kargu guzti haiek zein eratako erakargarritasuna sortarazten zuten ez dakigu. Ezta kargudun haiek nortzu ziren, edota zeren arabera aukeratzen ziren. Are gutxiago bertako loturak edota aurkakotasunak nolakoak ziren. Galdera guzti hauek erantzuten ahaleginduko naiz ondorengo orrialdeetan. Horretarako Hiribildu eta Lur Lauan egituratutako XVI eta XVII. mende hasierako Bizkaiko Jaurreriaren kasua izango dut aztergai.

## 2. Hiribilduak

Ezaguna denez, Bizkaiko Hiribilduetako antolaketa juridiko-instituzionala Logroñoeko Forutik dator, hau da, Gaztelako legeritik. Bertan auzokideen asanblada zen Udalbatza eta kargudunez osatutako Erregimendua ditugu. Bigarrenak nahiko konpententzia zabalak zituen, besteak beste, hainbat baliabide ekonomiko –dendak eta azokak, esaterako– kudeatzea edota lehen ins-

---

(1) O. BRUNNEREN lanak izan zirenetik, gero eta ikertzaile gehiagok jarraitu dute gai hau. Besteak beste, ik. Iberiar Penintsulari Dagokionez, B. CLAVERO SALVADOR (1985) edota A.M. HESPAÑA (1989).

(2) Eztabaida honen sintesi baterako, R. LÓPEZ ATXURRA (1991: 117-170).

(3) Bigarren Mundu Biltzarreko aktak edota Eusko Ikaskuntzak berak antolatutako tokiko historiari buruzko ihardunaldiak dira, besteak beste, horren lekuko.

(4) Azken hamarkadetakoa ikerketa gehienek Aitzin Erregimeneko krisialdia landu dute batik bat. Ik. A. OTAZU Y LLANA (1973), E. FERNÁNDEZ DE PINEDO (1974) edota F. MARTÍNEZ RUEDA (1994). Dagokigun garaia zertxobait gehiago landu zuten G. MONREAL CÍAK (1974: 141-236), J.J. MADARIAGA ORBEAK (1979: 507-557) edota F. AJURIA ASTOREKAK (1998).

tantziako epaiketak ezagutzea. Horregatik kargu guzti hauek oso erakargarriak ziren goi mailako taldeentzat, edo goi mailako taldeek osatu nahi zutenentzat behintzat. Tirabirak, beraz, maiz askotan lehertuko ziren, oligarkizatzeko edota kanporatze prozesuak gorpuztuz.

Bilboko kasua alde batera utzita<sup>5</sup>, Jaurerriko gainerako Hiribilduetakoa aztertuko da. Kargudunak hautatzeko prozedurari dagokionez, zakurapena gehien hedatutako prozedura zen. Balmasedan, 1555.eko Udal Ordenantzen arabera, kargudun ohiek aukeratzeko zuten Erregimendu berria, betiere Alkatetzarako aukeratuak izango ez zirenek gainerako karguetako zozketetan sartzerik ez zutela baldintzaturik<sup>6</sup>. Prozedurak antzekoak omen ziren Bermeon<sup>7</sup>, Gernikan, Urduñan<sup>8</sup> edo Otxandion<sup>9</sup>. Durangon, bestalde, era mistoa zen, non kalez kaleko zozketaren bidez izendatutakoak eta kargudun ohiek zakuratzen ziren hautesleak aukeratzeko; geroago ateratakoek beste izen batzuek proposatzen zituzten, kargu guztiak azkenengo hauen artean zozketatzeko. Prozedura antzekoa ei zen Markinan<sup>10</sup>. Portugaleten, berriz, 1615.era arte hautesleak kalez kale zozketatzen baziren ere, handik aurrera Erregimenduko kargudun ohiek aukeratuak zituzten zakuratu beharreko kideak<sup>11</sup>.

Kargudun izateko baldintzei dagokionez, garai hartan gutxienezko eskakizun ekonomikoa oso Hiribildu gutxitan ezarria zela ohartarazi beharra dago<sup>12</sup>. Puntu honetan datza, beraz, Aro Berriko ondorengo mendeekiko edota

---

(5) Hiribildu honen analisiak, berez, artikuluko honen luzapena gaitutuko luke. Dena dela, aztergai izan nuen doktoregoko tesian (M. ZABALA MONTOYA: 2001).

(6) V.E.K.A.: B.E.: 226. p.s., 2. znbk.

(7) 1547. urtetik bederen. V.E.K.A.: B.E.: 1032. p.s., 2. znbk.

(8) 1518.eko hautatzeko prozeduran moldaketak ezarri arren, 1569 eta 1637.eko Udal Ordenantzek ez zuten sakoneko aldaketarik erakarri. Cf. J.I. SALAZAR ARECHALDE (1990: 81-90).

(9) V.E.K.A.: B.E.: 1283. p.s., 7. znbk.

(10) M.U.A.H.: Akta Liburua (1630/37).

(11) M. CIRIQUIAIN GAIZTARRO (1942: 92-93).

(12) Bilbo, Portugalete eta Gernikan, hain zuzen ere. Durangori dagokionez, eskakizun ekonomikoa indarrean sartu zen 1610.ean (Alkate izateko gutxienezko 500 dukata izan behar, Sindiko izateko 300, eta Erregidoretzarako 80), nahiz eta 1618.eko Udal Ordenantzetan zehazgabeko eraz adierazi: "que sean bastantemente abonados de haciendas conocidas". F. AJURIA ASTOREKA (1998: 47) eta J.M.<sup>a</sup> LARRACOECHEA BENGOA (1989: 376).

garaiko beste lurraldeekiko alderik nabarmenena, nahiz eta zenbait giza talde baztertzeko prozedura faltarik ez izan. G. MONREALek<sup>13</sup> hiru multzotan sailkatzen ditu hautagaiantzako eskakizunak: adina bezalako neurgailuen bitartez onartutako heldutasuna, kaparetasuna edota ogibide mekanikorik ez izateak isladatzen zuten gutxienezko gizarte maila, eta –azkenik– kargua zuzentasunez betetzeko bermeak (auzotasuna, nepotismoaren debekua). Arau guzti hauek zein neurritan betetzen ziren aztertuko dugu.

## **2.1. Kargudun izateko eskakizunak**

### **2.1.1. Auzotartasuna**

Kargudun izateko aurrez gutxienezko urte kopuru bat bete behar izateak giza mugikortasunaren ahalbideak murriztuko zituen oso. Baldintzapen hau nabarmetzen zen bereziki merkatal guneetan, non mugikortasuna oso arrunta zen. Kargudun izateko harresi barruan bizi izateko eskakizuna ildo beretik doa. XVI. mendean zehar mota honetako murriztapenik azaleratzea guztiz logikoa dirudi: lehen urteetako garapen ekonomikoaren ondorioz goi mailako taldea biderkatu zela, koiuntura ekonomikoa aldatu ahala, talde hori itxi behar izan zen bere estatusa bermatu ahal izateko.

Durangon errebaletako auzokideek sektore ekonomikoaren krisialdiari aurre egiteko burdina eta beste hainbat merkantzia salerosten zituztenez gero, Hiribilduko justiziak erreakzio bortitza izan zuen: errebaletako auzokideei dendak eta ostatuak irekitzen edota birsalmentetan parte hartzen oztopatzea. Izan ere, burdindegiko pisua kendu zien. Auzia Kantzelaritzako Presidente eta Entzuleen entzutegiraino heldu zen, non aurreko sententziak moteldu ziren: handik aurrera errebaletako auzokideek salerosi ahal izango zuten ogia (erositako gariak egindakoa izanda ere), sagardoa (norbere uztakoa zen ala ez kontutan izan gabe) eta burdina (bertako sutegetakoa zein edonon erositakoa ere). Halaber, etxebizitzetan suteegi eta pisuak izatea legezatu zen<sup>14</sup>. Edozelan ere, Durangoko Erregimendua ez zen sententziaren aurrean makurtuko eta 1650.ean, berriz ere, harresitik kanpoko salerosketak debekatu zituen. Orduan auzokideek beste era batez jokatu zuten. Durangoko justiziaren partaidetzarik gabe merkatal trukaketetarako askatasuna eskatzeaz batera, Erregimenduan parte hartu ahal izatea ere aldarrikatuko zen:

---

(13) G. MONREAL Cía (1974: 221-223).

(14) V.E.K.A.: B.E.S.: 1. K. (1561.XII.5).

“...y ansimismo, aviendo de ser admitidos para las elecciones de la Justicia y Regimiento de la dicha villa como a vecinos della se nos cargan en cosas que ofreçen en ella pues quien lleba las cargas deve goçar tanvien de los honores franqueças y libertades como los demas veçinos.”<sup>15</sup>

Argumentua aitzaki hutsa ez ote zen galdetzea zilegi da. Menpeko talde hauek mendeku hartuko zuten 1665. urtean Martín Deunaren Kofradiaren izeanean Pedro de Gamboa Sindiko izendatzearen kontra jotzean, ostatua izatea leporatuz<sup>16</sup>. Sindikoaren esanetan, berriz, beste bi Erregidorerekin –Pedro de Ortuzarrekin eta Pedro de Arandiarekin, hain zuzen ere– beste horrenbeste gertatzen zen. Nahiz eta Epaille Nagusiak Sindikoaren alde azaldu, sententzia 1666.eko Ekainak 26an ezagutarazi zen, hauteskunde berrietatik hiru hilabete-tara baino ez, alegia.

Aurrez, 1591.eko Durangoko hauteskundeetan, auzotartasuna zela medio bazterketa ere izan zen. Galarraga Batxilerra<sup>17</sup>, Martín de Murueta eta San Juan de Murueta ez ziren onartuak izan hauteskunde egunean kanpoan egotearren. Bi egun beranduago bozketak errepikatzea agindu zenez gero, ezohizko ikusmina sortu zen udalerrian, bertan seirehun kide inguru bildu zirela. Tirabira gogorrak izan omen ziren: hainbat hauteslek boto emateari muzin egin zioten, lagun batzu Galarragaren ordezkoko hautagaia izandako Roque López de Unda Kapitainaren proposamena baliogabetzen ahalegindu ziren, etab<sup>18</sup>. Durango bezalako udalerrri batetan, non Arabarako merkataritza funtsezkoa zen, halako kanporaketek egoneza baino ez zekarten. Izan ere, sako-neko arazo berbera errepikatuko zen 1636.ean. Halako hartan, baztertutako hautagaia Agustín de Oxinaga izan zen, ustez auzotartasunik ez betetzeaz gain,

---

(15) B.A.H.P.: N.A.: Isk. Juan Bautista de Gamboa (Durango): 91. p.s. Aurrez Bigarren Alkatea zen Juan López de Echaburuk debekuak ekar zitzakeen ondorio larrien berri eman zuen. Ik. J.M.<sup>a</sup> LARRACOECHEA BENGOA (1989: 84).

(16) V.E.K.A.: B.E.: 1424. p.s., 16. znbk.

(17) Valladoliden edota Salamankan sarri askotan egoten zen. Dirudienez, bere Durangoko etxebizitza alokatuak zeukan. Lekukoren batek Bilbon bizitzera joateko asmoa omen zeukala adierazi zuen. Hauteskundeetako errepikapenaren kontrako protestaren buruan Pedro de Amezo-la, Galarragaren maizterra, eta Lope de Uribe, koinatua, azaldu ziren.

(18) V.E.K.A.: B.E.: 11. p.s., 3. znbk. 1592.eko Martxoak 8an, berriz ere, hauteskundeak errepikatzeko Udaltzako eskatzeari ekin zioten batzuk. B.A.H.P.: N.A.: Isk. Gabriel de Zamalloa (Durango): 9. p.s.

apaiz baten semea izateagatik. Oxinagak bere burua defendatu zuen Gaztelatik etorritakoek halako frogarik aurkeztu beharrik ez zutela esanez<sup>19</sup>.

Ermuaren kasuan beste horrenbeste gertatzen zen. Gipuzkoarako bidean kokatutako Hiribildu hau gune ezin aproposagoa zen kanpotarrak kargu publikoetatik kanporatzeko kaparetasunezko ziurtagiriaren noizbehinkako eskakizunaren bidez: ziurtagiriak aurkezteko orduan irregulartasun asko izaten zirenez gero, edozein unetan erabil zitezkeen gustoko ez zen hautagairen bat baztertzeko. Adibide ugari egon zen garai hartan: Juan de Bueyer Braut 1637.ean; Antonio de Elgueta 1656.ean; Francisco de Aguinaga, Juan Bautista de Isasi eta Juan Bautista de Treviño, berriz, 1661.ean. Aipagarria da Francisco de Zabaloren kanporaketa, kasu hartan legez kanpoko prozeduraren bitartez baliogabetu omen zitzaiolako<sup>20</sup>. Ondorioz, Jaureria kanporatutakoaren alde azaldu zen eta 1650.ean Hiribilduaren aldeko idazkia sinatu zuten guztiak espetxeratuak izan ziren<sup>21</sup>.

Balmasedan ere kanpoan egoteagatik eguneroko eginkizunak betetzerik ez zuten kargudunak aukeratzen ziren sarritan. Izan ere, arrazoi honengatik izan ziren kexak 1621.ean hautagai batzuren kontra<sup>22</sup>.

Alderantzizko kasua dugu, berriz, Urduñan. Bertan Alonso de Uragak eta Martín de Aranak Agoazil izateari muzin egin zioten 1589.ean, Hirian bizi beharreko gutxienezko epea bete ez izana argudiatuz<sup>23</sup>.

---

(19) V.E.K.A.: B.E.: 1379. p.s., 2. znbk.

(20) B.A.H.P.: N.A.: Isk. Juan Bautista de Gamboa (Durango): 82. p.s.; B.F.A.A.: A.J.: Korr.: 805. p.s., 12. znbk.; eta atal bereko 805. p.s., 18. znbk.; 1573. p.s., 9. znbk.; eta 748. p.s., 24. znbk. hain zuzen ere.

(21) V.E.K.A.: B.E.: 387. p.s., 2. znbk. eta B.A.H.P.: N.A.: Isk. Juan Bautista de Gamboa (Durango): 91. p.s. Francisco de Zabalo biek, aitik eta semeak, karguak beteko zituzten Ermuan, bai prozesua izan aurretik, eta baita ondoren ere. Gaiak zatiketa larria sortarazi omen zuen udalerrian: atxiloketak izan zirenetik hilabete batera Juan de Azpiri Sindikoak Pedro de Arechuloeta salatu zuen Erregimendu batetan izandako desakatuagatik.

(22) V.E.K.A.: B.E.: 315. p.s., 14. znbk.

(23) Epaile Nagusiak argumentua ontzat eman eta hauteskundeak errepikatzea agindu zuen. V.E.K.A.: B.E.: 738. p.s., 5. znbk.

### 2.1.2. *Senideen aldibereko bateraezintasuna*

Udalerririk populatuenean arau hau kasu guztietan ez zela betetzen argi-ago erakusten dute. Eta ez zen hala izan ordezeko hautagairik ez egotearren, oligarkizapen mailarik nabarmeneko tokiak izateagatik baizik.

Urduñako Erregimenduan, esate baterako, gutxienez 1518. urtetik baze- goen indarrean senideen aldibereko bateraezintasuna: ez aita-semerik, ez anai- rik, eta ezta aitagarreba eta suhirik ere ez<sup>24</sup>. 1569.eko Udal Ordenantzetan ere hala arautu arren, sarritan ez zen beteko, 1575.ean salatzen zenez:

#### 1. *Laukia: Urduñako Erregimentuetako ahaidetasuna (1560/75):*

<i>Urtea</i>	<i>Nortasuna</i>	<i>Ahaidetasuna</i>	<i>Kargua</i>
1563	Lezama, Martín Saez Lezama, Francisco	Aita Semea	Alkate Erregidore
1563	Mimenza, Francisco Ochandiano, Clemente López	Suhi Aitaginarreba	Alkate Erregidore
1568	Herran, Juan Lezama, Martín Saez	Suhi Aitaginarreba	Alkate Erregidore
1569	Ugarte, Martín Saez Uriondo, Antonio	Aitaginarreba Suhi	Sindikoa Erregidore

*Iturria:* V.E.K.A.: B.E.: 185. p.s., 1. znbk.

1587. urtean Juan de Vidaurre Erregidorea ere Juan de Uscategui bere koinatua Erregidore proposatzen saiatu zen, baina ez zen onartua izan.

Balmasedako egoera ez zen oso ezberdina. Bertan ere senideek elkar pro- posatzen zuten kargu ezberdinetarako, beraien nagusitasuna betiketuz, Udal Ordenantzen aurka izanda ere. 1591.ean azpijoko hauen kontrako abotsak entzun ziren, zera esanez:

“...arán suyos como propios los oficios públicos, nombrándose los unos a los otros sienpre, de manera que no saldrán de entre ellos, aviendo, como ay, otros muchos vecinos muy onrrados y prinçipales que pueden exercer en los dichos oficios.”

(24) J.I. SALAZAR ARECHALDE (1990: 86-87).



Protesta hura ez zen funtsarik gabekoa. Hona hemen frogatzen:

2. *Laukia: Balmasedako Erregimenduko hauteskundeetako ahaidetasuna (1590/91):*

<i>Hauteslea</i>	<i>Hautagaiak</i>	<i>Kargua</i>	<i>Ahaidetasuna</i>
Berastegui, Pedro	Berastegui, Aparicio Mioño, Francisco	Alkate Erregidore	Anaia Suhir
Bedia, Diego	Bedia, Juan Mioño, Francisco	Erregidore Erregidore	Aita Osaba
Mioño, Juan Ortiz	Mioño, Francisco	Erregidore	Anaia
Turcios, Juan	Mioño, Francisco Berastegui, Aparicio	Erregidore Erregidore	Osaba Koinatua

*Iturria:* V.E.K.A.: B.E.: 240. p.s., 11. znbk.

Edozelan ere, ez ziren bi udalerrri hauek nepotismoa ezagutu zuten bakarrak izan, ikusiko dugunez.

### 2.1.3. *Udal balibideetako errentamendua*

Eskakizun hau erabat ulergarria da kide bakarra onuraduna eta ikuskaria aldeberean izan dadin ekiditzeko (udal arieletako kudeaketa edota azoketako salmentak bertako justiziak gainbegiratu behar zituen eta). Arau hau bete ez zutenak batez ere goi-goi mailakoak ez ziren lagunak ditugu, halako negozio-tan parte hartzen zutenak talde zuzentzailea bera baino gizarte mailan igo nahian zebiltzan kideak zirelako. Horregatik ez zen oso prozedura arrunta izaten hautagaiak kanporatzeko. Edozelan ere, noizbait erabili zen, gustokoa ez zen hautagairen bat aurkeztean. Gehienetan, berriz, kide guztien arteko nolabaiteko adostasunari esker edo, araua ez ikustearena egin zen. Urduñan, esate baterako, bertan behera gelditu zen 1611.ean Martín de Aguinaco Fiela izendatzea Ate-saria bere gain egoteagatik<sup>25</sup>. Balmasedan, bestalde, Marcos de Resines, Vicente de Burgos eta Mateo de Berastegui kanporatuak izan ziren 1622.ean harategietako hornitzaile eta udal burdinolako errentariak izatearren<sup>26</sup>.

(25) V.E.K.A.: B.E.: 906. p.s., 6. znbk.

(26) V.E.K.A.: B.E.: 315. p.s., 14. znbk.

### 2.1.4. *Udalerriaren aurkako auziak*

Eskakizun hau ere ezinbestekoa dugu Erregimenduetako bileretako partaidetzak auziaren berri zuzena izateko aukera ematen zuen eta. Hala ere, talde zuzentzaileko kideak sarritan argumentuaz baliatu ziren arerioak baztertzeko.

Hala gertatu zen Urduñan 1575.ean. Urte hartan Erregimenduak bertan behera utzi zuen Martín de Orúe Erregidorearen proposamena Francisco de las Rivas Alkate aukeratzeko<sup>27</sup>. Behin behineko kanporaketa hura indargabetu zuen Korregidorearen Tenientea zen Lojeri Lizentziatuak eta De las Rivasek erabateko askatasunez bere burua aurkeztu ahal izan zezan hauteskundeak errepikatzea agindu zuen<sup>28</sup>. Eztabaidak luzaro iraun omen zuen, 1616.ean Francisco de Medinak Hiriaren aurkako auzirik izango zuen inor hautagai izendatzea debeka zedin eskakizuna Kantzelaritzan aurkeztu zuela. Baita gauzatu ere<sup>29</sup>. Edozelan ere, agindutakoa ez zen beteko. 1627. urtean Francisco de Aguinacok Alkatetzarako Pedro Ruiz de Villodas proposatu zuen, nahiz eta Villodasek Hiriaren kontrako epaiketa izan udal basotan eragindako kalteak zirela kausa<sup>30</sup>. Erabilitako argumentua zera zen: auzia Alkatetzarena ez zen beste epaitegi batetan zela. Ganora handirik gabeko aitzakia, nonbait, hauteskundeak errepikatu behar izan ziren.

Bermeon Erregimenduak San Juan de Abaroari 1618.eko Udal Kontuetako zirriborroak bueltatzeari uko egin zion kitapena burutzerik izan ez zezan eta, ondorioz, hurrengo urteko Erregimenduak salaketa jar ziezaion, azkenik gertatu zen modura<sup>31</sup>.

---

(27) De las Rivas Itsasoko Hamarrenetako jasotzailea izanik, interesak ordaindu ez izanagatik auzia zegoela adierazten zuen Erregimenduak. De las Rivasek, berriz, aurreko bi urtetan ere hautagaia izan zela ohartarazi zuen. V.E.K.A.: B.E.: 185. p.s., 1. znbk.

(28) 1575.eko Urtarrilak 10eko sententziaren arabera. Apelazioa Kantzelaritzara bidalita, behin eta berriz errepikatuko zen Presidente eta Entzuleengan heldu arte. Hauek ere beste horrenbeste esan zuten 1576.eko Utzailak 6an, eta kargudunek bakarrik lortu zuten hauteskundeetan izandako zalapartaren ondorioz ezarritako zigorraren murrizketa.

(29) Egia esan, Francisco de la Llana Lizentziatuak, Julián de Rubinak eta Pedro Ruiz de Villodasek 1617. urteko Alkatetza eta Erregidoretzak lortzeko asmoz ahaleginak burutu zituzten, nahiz eta berauek Hiriaren kontrako auzia izan harresi ondoko lursaila zela medio. V.E.K.A.: B.E.: 1362. p.s., 17. znbk.

(30) Pedro Ruiz de Villodasek, gainera, irregulartasan askotan hartu omen zuen parte Alkatetza izan zen 1622. urtean. Besteak beste, epaiketetan partziala izaten, iruzurren bidez zergak jasotzen edota “aver persuadido a dos muxeres cassadas que tubiessen cópula y açesso carnal con el dicho Alcalde”. V.E.K.A.: B.E.: 1362. p.s., 17. znbk. eta atal bereko 1368. p.s., 6. znbk.

(31) V.E.K.A.: B.E.: 1355. p.s., 18. znbk.

### 2.1.5. *Ogibideak*

Arlo honetan Bilbon bezainbesteko oligarkizate prozesurik ez zen izan Bizkaiko beste Hiribilduetan<sup>32</sup>. 1632.ean botikariak Jaurerriko Hiribildurik nagusienetan kargudunak ziren: Urduñan Florencio de Arano Sindiko eta Erregidore izan zen sarritan; Gernikan Juan Dexaok Alkatetza bete zuen 1632.ean; Balmasedan, berriz, Francisco de Ecenarrok bete zuen 1629.ean<sup>33</sup>. Hala ere, ogibideen eraginez murriztapenak izan ziren Hiribildu haietan ere. Izan ere, Balmasedan 1591.eko Erregimenduan Alkatea izandako Aparicio de Berastegui aurrerantzean bertan parte hartzeko eskubidea kentzen saiatu ziren berzkina zela leporatuz. Ahalegina alferrikakoa izan zen auzia bideratzeko Korregimenduaren Entzutegia ez onartzeagatik<sup>34</sup>. Antzeko zerbait gertatu zen 1622.ean, Alonso Ortiz de Velascok hautesleak eragiten omen zituen eta:

“...porque con la mano y poder que tiene (*Alonso Ortiz de Velascoz mintzatzen ari da*) corren suerte personas de su bocaçion y sugetas a su horden y que algunos de ellos son personas jornaleras y no ydoneas para semejantes ofiçios, aviendo como ay en la dicha villa personas beneméritas para poder obtener los dichos botos.”<sup>35</sup>

Baina, egia esan, gai honi buruzko murriztapenik ez zegoen: Udal Ordenantzek ez zuten horren debekurik arautzen<sup>36</sup>.

Oligarkizapena zertxobait ezberdina zen Otxandion. Kargudun ohiek Erregimendu berria aukeratzeak, nahitanahiez, karguak iraunaraztera zerman. Hala ere, ohorezko kargudun izateko ezinbesteko baldintzapena zen aurrez gainerako karguak bete izana. Are gehiago: prozedura honetaz baliatu ziren kargudunik nagusienak murriztapena areagotzeko eta beraien artean karguak betikotzeko, nahiz eta Alkatetza eta Erregidoretzak zuzenean betetzera heldu zirenen aurkako protestak izan. 1579.ean Juan de Arriquirar eta Gaspar de Usaola kanporatuak izan ziren arrazoi honengatik<sup>37</sup>.

(32) Cf. M. ZABALA MONTROYA (2001: 109-124).

(33) V.E.K.A.: B.E.: 1305. p.s., 80. znbk.

(34) V.E.K.A.: B.E.: 226. p.s., 2. znbk. Alkate berriaren aurrean erabaki behar izan zen.

(35) V.E.K.A.: B.E.: 315. p.s., 14. znbk.

(36) Eskakizun bakarrak hogeita bost urtetakoa zen gutxienezko adina, auzotartasuna eta ezkontuta egotea ditugu. Ik. V.E.K.A.: B.E.: 226. p.s., 2. znbk.

(37) V.E.K.A.: 1283. p.s., 7. znbk. Beraiek ere aurreko berrogei urtetan arau hau bete ez zutenen kargudunen zerrenda luze bat aurkeztu omen zuten.

### 2.1.6. *Iruzurrak eta eroskeriak*

Irregularitasunak begibistakoak ziren Balmasedan oso goiz. 1536.ean Erregimenduak Hauteskundeetako Ordenantza berriak bereganatu zituen:

“vistas las diferencias, cuestiones y escándalos y rruídos que fueron en esta Villa de Valmaseda los años pasados en rrazón de las elecciones de los ofiçios reales della, a causa de no se conportar en los botos”<sup>38</sup>.

Bertan kargu guztiak erdibanatzen ziren Santiago eta Kepa Deuna bilakatu-tako Gil eta Negrete bandu zaharren artean: urtero Alkatetzarako boto kopurua txandakatzen ziren, inoren apelaziorik gabe emaitza onartu beharra zegoela. Berehala testu berriaren erret baieztapena eskatu zen, betiere “que en caso que Su Magestad no fuere servido de nos azer la merced, que todavía se guarde lo suso-dicho” ohartaraziz. Dirudienez, prozedura berri hura ez zen egokia izan. Egoneza piztu ei zen 1555. urtean. Alonso Pérez de Arteaga Korregidore berriak Enkarterrietako Tenientea zen Rodriguez Lizentziatua bidaltzea erabaki zuen hauteskundeak honen aurrean ospa zitezten. Baina Pedro Caperok bere hauteslearen aurkako iskanbila eragin zuen, aurrez ez bezala, ohorezko kargu baterako baino bestelako baterako aukeratua izan zelako. Behin berriro eraldatu behar izan ziren Hauteskundeetako Ordenantzak, banduen arteko karguetako parekotasuna bermatzeko. Hala ere, aldaketak ez zuen erabateko adostasunik izan<sup>39</sup>.

Akusazio ezberdinen arabera, Artzentalesgo “ahaide nagusia” eta Balmasedan auzotutako Puente Hurtado de Mendoza Traslaviña zen gorabehera guzti haien azkenengo erruduna, honek bere aldeko hautagaiak aukera zitezten Erregimenduko kideak mehatxatzen edota erosten zituelako:

“...que en la dicha villa de Valmaseda en ambos linaxes se eligen personas que el dicho Puente Hurtado manda, e les dá por memoria eligen los eletores, e no otros algunos que no estén en su voluntad”<sup>40</sup>.

(38) 1559. urtea bitarteko Balmasedako hauteskundeetako gorabehera guztiei buruzko informazioa iturri honetatik dator: V.E.K.A.: B.E.: 226. p.s., 2. znbk.

(39) Hiribilduko auzokideen arteko tirabirak izateaz gain, bertako Merino titularra zen Tristán de Leguizamónen protesta ere azaleratu zen ustez Erregimenduan izandako boto eskubidea galtzeagatik.

(40) Azpijokoen artean hona hemen batzu: zegokiena baino maila baxuagoko karguak banatzea edota Puenterenganako adeitasuna erakustea (kargudunek publikoaren aurrean lehentasuna utziz, oilarrak bidaliz, etab.). 1558.ean Juan Martínez de Herrado Erregidore aukeratua izan zen, betiere aurrez hurrengo urteko hauteskundeetan Zumalabe, Diego de Urrutia edota Nicolás de Quadra Batxilerrei botorik ez ziezaien eman baldintzaturik, geroago Herradok berak aitortu zuenez.

Puente ez zen akusazioen aurrean makurtu eta, amore eman ezean, Erregimenduarenganako eragina areagotu zuen bere etsairik amorratuena gartzelaratzuz (berauen artean hautesleren bat ere barne) 1559.eko hauteskundeetako bezperan. Epaille Nagusiarena baliogabetu zuen Presidente eta Entzuleen sententziak harrigarria dirudi, Puenteren argumentuei arrazoia eman ez erret ordez kariaren aurrean ospatutako hauteskundeak bertan behera uztea agintzen zen eta. Baliteke Puente Gortean mugitu eta Enkarterrietako jatorria zuten goi mailako kideen mesedea aprobetxatu izana (izan ere, inplikaturakoen artean Landeras Lizentziatua dugu). Hala ere, Kantzelaritzako erabakia ulertzeko argumenturik nagusia Chinchillaren Arautegiarena izan zen seguru asko, Puente eta bere jarraitzaileek araudi honen baliogarrtasuna defendatzen zutelako, Udal Ordenantzek eraldatzen zuten bitartean.

Irregularitasunak, beraz, ez ziren moteldu eta 1579.ean Pedro López de la Puente auzokideei egin zien aurre, “se ha de hacer lo que yo diga y no lo que pida el pueblo” esanez<sup>41</sup>.

Hona hemen Balmasedako hauteskundeetako beste hainbat iruzur. 1591.ean Pedro de Berastegui Aparicio de Berasteguiaren alde botoa ematera behartu zuen Juan Ortiz de Mioño, ondasun batzuetako hipoteka zela medio. Honek, halaber, Lucas de Zumalaberen alde bozkatu zuen Mioñoren semea apaiz aukeratzeko Zumalabe Batxilerrak emandako hitzaren truke<sup>42</sup>. 1621.eko Alkatea izandako Severino de Limpiasek bi boto izan omen zituen urte hartako Erregimenduko bozketetan (bigarrena Hiribilduko Merinoa izateagatik). 1622.ean Alonso Ortiz de Velascoren aurkako protestak izan ziren; berauen arrazoia zera da: “tener en su mano y dar a quien quiere los dichos ofiçios, que todo es en gran perjuicio de la comunidad”<sup>43</sup>.

Durangon ere irregularitasunak izan ziren hauteskundeetan. 1636.ean Antonio de Traña Alkate aukeratu zuten aurreko Alkatea eta berriaren anaia zen Juan Martínez de Traña Kapitainaren<sup>44</sup> jukutriei esker (lehenak etxebizitzaren eskakizuna bete zezan, honek alegiazko salmenta egin zion)<sup>45</sup>.

---

(41) J. GÓMEZ PRIETO (1991: 151).

(42) V.E.K.A.: B.E.: 240. p.s., 11. znbk.

(43) V.E.K.A.: B.E.: 315 p.s., 14. znbk.

(44) Honi “quitar la libertad de cada cual para botar (...) para traer a su contemplación botos que en su libertad no se ynclinarían” leporatzen zaio.

(45) Halako hartan gutxienezko eskakizun ekonomikoa gogorarazi zen.

Bermeon hautagaiaren estatus sozioekonomikoak hauteskundeetako arategia bertan behera gelditzea lortu zuen noizbait. Auzoz auzoko<sup>46</sup> banaketa begirunez betetzeko beharra egon arren<sup>47</sup>, 1638.eko Abenduak 27an, behin Apioza eta Areilzako hautesleak ados jarrita, Diego de Abaroa Arteaga aukeratu zuten Alkate, beste hautagai aproposik ez zegoela argudiatuz<sup>48</sup>. 1654.ean, berriz ere, Abaroa adostasunez aukeratua izan zen; baina halako hartan Apioza auzotik baino Arosteguitik, bai Bermeoko Santa Eufemia Elizako patronatuan zeukan partaidetza Hiribilduari eman izanagatik, nola baita 4.000 dukataz kai nagusia konpontzeko lanetan parte hartu izanagatik ere<sup>49</sup>.

Egia esan, gatazka guzti hauen atzean Bermeoko Erregimenduko itsasontzietako maisu eta nekazal lurjabeen arteko bikoiztasuna azaleratzen zaigu (gogora bedi Hiribilduaren menpe nahiko lur esparru handia zegoela). Dena dela, Bermeoko Udal Ordenantzek (Lekeitio bezalako beste itsasportu batzuetakoek ez bezala) nahiko kontrol zorrotza ezartzen zieten itsasgizonei, absentismoa ekiditzeko asmoz Erregimenduetara joateko beharra xehetasunez arautuz. Edozelan ere, marinelen zorpetze prozesua zela medio, bi taldeen arteko lehia moteldu omen zen. Izan ere, aurreko kasuan itsasgizonek Abaroaren aldeko jarrera hartu zuten<sup>50</sup>.

Gernikako Erregimenduan garai hartan Jaurerri mailan Lur Laua eta Hiribilduen aurrez aurreko gatazka ageri zen. XVI. mende amaieran Hiribilduek jarraitutako estrategiarekin bat ez zetozenek enfrontamendua

---

(46) Banduetaz mintzatzeko eufemismo hutsa. Izan ere, oraindik ere 1655.ean leinuak deitzen zaie.

(47) 1547. urtetik behintzat lau ziren hauteskunde-barrutiak: Apioza, Ermundurua, Areilza eta Arostegui.

(48) Hautaketa izan zen, nahiz eta aurrez Elgueta Korregidoreak hauteskundeak bertan behera utzi arrazoi berberagatik.

(49) V.E.K.A.: B.E.: 1032. p.s., 2. znbk. Aukeraketa justifikatzen saiatu ziren: “por ser dueño y señor en propiedad y posesión de la torre y solar de Arostegui, caveza del dicho linaje”; beraz: “*sin envargo de que en la dicha elección no se ubiese guardado la fforma de las Hordenanzas, que por esta vez no quieren se guarden*” (azpillerrotutakoa originala da). Hala ere, Kantzelaritzako Presidente eta Entzuleek bertan behera utzi zuten izendapen hura (V.E.K.A.: B.E.S.: 5. K., 1657.X.6). Dirudienez, auzia Antonio de Allotiz eskutoreak bultzatu zuen, 1638.eko hauteskundeetan gertatutakoaren mendekua hartu nahian edo.

(50) Jakina, bien arteko bikoiztasun hori erabatekoa zenik ez da pentsatu behar; noizbait diru iturri biak tartekatzen dira eta.

eragin omen zuten. Gernikak jesarlekuetako ordenagatik Balmasedako Hiribilduaren aurkako auzia amaitu arte Batzar Nagusietara ahalduz ez bidaltzea erabakita zeukan (izan ere, bilera askotan ez zen egon); baina 1593.eko Martxoak 30eko asanblada zela kausa (non Erregimenduei buruzko funtsezko determinazioa hartuko zen), Ochoa de Arana Alkateak eta Martín de Unzueta eta Domingo de Orue Erregidoreek Gernikaren ordezkariaren bat igortzea erabaki zuten. Horretarako San Juan de Mugaguren bilbotarrari luzatu zioten isilpeko ahalmena. Azpijoko honek protestak eragin zituen: Udaltzatza Ireakia eskatzeaz batera, Mugagurenen aldeko ahalmena bertan behera uztea exigitu zen kanpotarra izateagatik<sup>51</sup>. Denborak Mugaguren eta bere defendatzaileen alde jokatu zuen, lehena Erregimenduetara joan ahal izan zen eta. Hala ere, aurkakoek Kantzalaritzan Erret Eginkizuna lortu eta 1594.eko Martxoak 1eko Hiribilduetako Erregimenduan publikoki Mugagurenek egingakoa balio gabetu zuten<sup>52</sup>.

Larrabatzuko hauteskundeetan ere nepotismoa eta iruzurra ez ziren ezezagunak izan. Bertan Pedro de Sarricoleak Alkatetza bete zuen 1598 eta 1599. urteetan. Honek, ikuskaritzarik ez onartzeaz gain, udal baliabide zenbait bereganatu zuen biurteko hartan, ondorengo urterako aginte-makila suhiari emanenez. Auzokideak 1601.eko Abuztuak 24ko hauteskundeetan Sarricoleak berriz ere Alkatetza berreskura zezan beldur zirenez gero, Dóndiz Lizentziatua bidalia izan zen begirale modura. Hala ere, azkenengo hau Sarricolearen maltzurkerietako laguntzaile bilakatuko zen: hauteskundeak guztien aurrean egin ezean, hautesleak (Sarricolea ere barne) bakarrik elizaren barruan sartzea bertan burutzeko agindu zuen. Behin prozedura hasita:

“...teniendo el mismo (*Dóndiz Lizentziatuaz ari da hitz egiten*) en sus manos el sombrero, al tiempo que los electores havían de echar los chanteles, y él mismo los tomó a sus manos y los metió en el sombrero, y con los dos chanteles primeros apretó abaxo el sombrero, y con el terçero chantel, que hera el de Domingo de Aguirre, elector que nonbrava a Pedro de Sarricolea por Alcalde, puso suelto en el dicho sombrero para

(51) Protesta eragin zutenen artean aurreko urteetako Gernikaren absentsiari aurre egiteko Batzar Nagusietan Markinaren ahalduz bezala azaldutako Antonio de Gorrio iskribadua du.

(52) V.E.K.A.: B.E.: 19. p.s., 3. znbk. Halako hartan Ermuaren izenean aurkeztutako San Juan de Mugaguren eta Errigoitiko ahalduz zen Martín de Aguirre kanpotatuak izan ziren biletarik. Noizbait Mugaguren bera Errigoitiren ahalmenaz azaldu zen asanbladan.

que el mochacho sacase primero, no allando otro chantel, haziendole sacar a un sobrino del dicho Sarricolea”<sup>53</sup>.

XVII. mendeko bigarren erdialderako Otxandioko Erregimendua sutegietako jabe nagusien menpe zegoela ematen du. 1662. urteko hauteskundeetako emaitzak Pedro de Anteparalucetak espero zituenak izan ez zirenez gero<sup>54</sup>, Idazkariaren eskuetatik akta hartu eta txikitu egin zuen. Anteparalucetak bozketak jarraian errepikatuz behartu zituen, bere hautagaia zen Juan de Barraicua bilbotarra aukeratzeko, “sin entrar en suertes” izanda ere.

Mungiako Hiribilduan ere irregulartasunak ziren hauteskundeetan, 1601.eko amaieran Pedro de Iturribalzagak salatzen zuenez:

“...algunas personas, sin ser oficiales ni botadores, entran al tienpo de las elecciones en la casa del Ayuntamiento a hallarse presentes y persuadir e ynportunar a los electores agan eleçion en las personas de su debocion”<sup>55</sup>.

Ugaon ere hauteskundeetako arautegia bortxatu zen (1575/81 edota 1606/09.eko alditan esaterako), Alkate eta Erregidoreak inolako bozketarik gabe zuzenean izendatuz<sup>56</sup>.

Lanestosa bezalako udalerrri txiki batetan ere azpijokoak izan ziren hauteskundeetan. Eraginkortasunak bultzatuta edo, 1635.eko auto baten bitartez

---

(53) B.F.A.A.: A.J.: Korr.: 1573. p.s., 7. znbk. Izugarritzko tamaina handiko iskanbila leher-tu zen berehala. Kargudunak setiatu zituzten elizan eta ozta-ozta libratu ziren lintxamenduz. Kantzelaritzako Presidente eta Entzuleek bertan behera utzi zituzten hauteskundeak 1602.eko Ekainak 11ko sententziaren bidez. Baina Sarricoleak harenganako gorrotoa ezezik, Hiribilduan hautagai aproposik ez egotea ere salatzen zuen:

“...porque además de lo alegado, en la villa de Larrabezua no ay quatro personas que sepan leer ni escribir, ni pueda ser eleto para ser alcalde de la dicha villa, y ningun vecino del rrabal, además de que no ay persona benemérita o sabe leer y escribir (*sic*), puede ser eleto conforme a la costunbre que ha avido y ay en la dicha villa.”

V.E.K.A.: B.E.: 197. p.s., 1. znbk.

(54) Juan de Barraicua Alkate izango zela espero zuen “como le tenían prometido”. Hauteskunde hauei buruzko informazio iturria zera da: F. MARTÍNEZ RUEDA y F. RAMOS MARTÍN (1990: 145).

(55) B.F.A.A.: N.A.: G.P.: 256. K. (1601.XII.29). Salaketa udal ondasunetako salmenta irregularren aurka zihoan.

(56) J.M. CIFUENTES PAZOS (1994: 106-107). Prozedura hau Bilbo edota Portugalete bezalako beste udalerrri batzutan ere gertatu zen.



Alkatetza bikoitza kide bakarrekoa izatera pasatu zen. Dena dela, 1666. urteko Alkatea zen Pedro Matienzo Xilón Pedro de Rozas Alkate ohiaren gustokoa ez zenez gero, bigarren honek, bere kabuz, aginte-makila bikoitzaren usarioa berrezarri eta beste Alkate bat aukeratzea agindu zuen<sup>57</sup>.

Errigoitia ere ez zen Korregidorearen mandatuaz libratu, 1637. urtean, karguak auzokide guztien artean bana zitezen<sup>58</sup>.

### ***2.1.7. Talde zuzentzailearen barneko bestelako tirabirak***

Aurreko orrietako liskarrik gehienak, modu batez ala besteaz, goi mailako kideen elkarren kontrako enfrentamenduen ondoriozkoak izan ziren. Jarraian bestelako batzu aztertuko dira.

Urduñako Erregimenduan ohorezko karguetan parte hartzeko tirabirak ezezik, alderantzizkoak ere izan ziren. Hau da, bete nahi ez ziren karguak (Agoazila, adibidez) arerioek aukeratuak izateko eraginezkoak. 1628.ean Alvaro de Rivagudak gaixorik zegoen eta hirurogeita hamar urte ingurukoa zen Lázaro de Zaldarriaga agureak Hiriko Sindikoaren betekizunak egin zitzaizkion<sup>59</sup>.

Portugaleten ezaugarri bereziak agertzen zaizkigu<sup>60</sup>. Bertan Erregidoretzak Hiribilduko goi mailako kideek (bai aitzinako abizenek nola baita merkatariek eta untzizabeek ere) betiketarik zeuzkaten. Gainera, hauek aukeratutako kargudunengan eragiten zuten, noizbehinkako egoneza sortaraziz. Hala gertatu zen, esate baterako, 1589.ean, Pedro de Salazarrek, Erregidorerik helduena zela esanez, aginte-makila aldarrikatu zuenean (bi Alkateak kanpoan ziren eta). Hiribilduak ukatu zion Hirugarren Alkate baten alde jotzeko; baina Salazarrek 1578.ean Hirugarren Alkatetza bertan behera uztea erabaki zela argudiatzen zuen. Hiribilduak, berriz, aurreko hogeitertan

(57) V.E.K.A.: B.E.: 1429. p.s., 13. znbk. Kantzelaritzako 1666.eko Martxoak 13ko sententziaren arabera balio gabetu zen Gabriel Ortiz de la Revilla Bigarren Alkatearen izendapena.

(58) E. PÉREZ GOIKOETXEA (1993: 89).

(59) Egia esan, bere negozio partikularren eginkizunak prestutasunez betetzen zituela esaten zen. Izan ere, Sobremazas Korregidoreak kargua betearazi zion Zaldarriagari. V.E.K.A.: B.E.: 1369. p.s., 9. znbk. (1628.IV.14).

(60) Kontraktorik ez bada esaten, hurrengo puntuetako iturria M. CIRIQUIAIN GAIZTARRO (1942: 90-120) dugu.

hainbat Erregidoreren aginte-makila izateko errefusapenak aurkeztu zituen. Portugaleteren argudioa funtsa handirik gabekoa izanda ere, Erregidore batzuren sustaketa jaso zuen<sup>61</sup>.

1603.ean, azkenik, Hiribilduak betikoturiko karguak bereganatu ahal izan zituen, kargudun bakoitzari 150 dukata eman ondoren. Puntu honetan Portugaleteko Hiribilduaren kasuak Bilbokoarekiko parekotasuna erakusten du, zertxobait beranduago gertatzen bada ere. Dena dela, Portugaleteko Erregimenduko liskarrak ez daude Bilbokoekin parekatzerik. Ezta Portugaleteren tamainako beste Hiribildu batzuetakoekin ere ez. Honen zergaitia segurtasunez jakiterik ez dago, baina lur ondasunetan gutxienezko 600 dukatatako eskakizun ekonomikoaren ezarpenak maila bajuagoko taldeen balizko asmoak bertan behera utz ei zitzakeen hasiera hasieratik. Egia esan, Udal honen arazoak barnekoak baino kanpokoak ziren; merkatal hartu-emanak zirela kausa Bilboko Hiribilduarekiko harremanak, alegia. Horrexegatik tirabirarik larrienak Prebostetza edota kontrabandoaren ondoriozkoak ziren.

Durangon ere Erregidoretzak betikotu ziren XVI. mendeko lehen erdialdean, aurrekoan izandako oihalgintzaren gorakadari esker edo (une hartarako iharduerarik nagusienak iltzeria eta goarnizionaria zirela)<sup>62</sup>. Betikoturiko Erregidoreek prozedura hura justifikatzen zuten hauteskundeak era guztietako irregulartasunen iturburua izateagatik:

“...haziendo ligas e monipodios, en son de bando y alboroto, ynduziendo a todas las personas de la dicha villa, y corrompiendo y sobornandolos, a los unos por dádbas y cohechos y promesas, y a los otros por menazas y por la fuerza, diciendo que los matarán si otra cosa hazen (...) lo qual, si así fuese, esta dicha villa vernía a muchos escándalos y diferencias, porque además del peligro evidente que ay en la dicha elección, durante el tiempo de la alcaldía de los dichos helegidos nunca les faltaría a los dichos Regidores pleytos y diferencias, debates, cuestiones y escándalos (...) por habitat los quales el príncipe nuestro señor y los (*bi lerro artean: señores*) de su Consejo determinaron de hazer y criar los dichos Regidores perpétuos”<sup>63</sup>.

(61) Hiribilduak bertan behera utzi zuen auzia hurrengo urtean.

(62) Aurrez Urquiaga, Muncharaz, Unda eta Berriz izan ziren Erregimendua menperatu zuten leinuak.

(63) V.E.K.A.: B.E.: 849, p.s., 2. znbk.

Baina betikoturiko Erregidoreen gehiegikeriek gainerako kargudunen kontrako liskarrak eragin zituzten. 1544.ean, esate baterako, Erregimendutik hainbat kargudun kaleratzeaz gain, Andrés López de Gamboa Foru-Alkatea erahiltzen saiatu ziren.

1618. urteko Udal Ordenantzetako aldaketak ez zuen hobekuntzarik ekarri. 1620.eko hauteskundeetan Gonzalo de Otalorak ez zuen Nicolás de Orozqueta iskribaua Bigarren Alkaterako hautaketan onartu; are gehiago: honen arbasoak iraindu ezezik, erahiltzen ere ahalegindu zen bileretako gelan bertan<sup>64</sup>. Enfrentamendu honek Magdalena de Orozquetaren heredentzia zela kausa iskribauak erasotzailearen aitagarreba zen Pedro de Guitsasaren aurka izandako gorabeherak Udalara desbideratu zituen<sup>65</sup>.

Bermeon Martín de Baquera Kapitaina bizimodu kaskarragatik<sup>66</sup> ezezik, Hiribilduko zenbait kargudunen aurkakotasun tinkoagatik ere nabarmendu zen. 1580. urtean, Erregidorea izanik, Goldizgo udal mendietako ustezko salmenta irregularrak zirela medio, Erregimenduan bortizki aritu zen, Hernan García de Areilza Alkateaz zera esanez:

“...que hera un bellaco ladrón provado y que ellos, como tales regidores, le havían de quitar la vara de las manos e aun la vida e que pues no guardava lo que la dicha rrepublica e su rregimiento de la dicha villa tenía mandado”<sup>67</sup>.

Bestealdi batez ere atxilotua izan zen, Erregimenduko bileran Prebostearen Tenientearen neurritz kanpoko ardoaren salmenta aztergai zela<sup>68</sup>. Seguru asko iskanbila hauen azpian itsasgizon eta lurjabeen elkarren kontrako aurkaritza zen.

---

(64) Nahiz eta hala edo nola kaparetasunezko ziurtagiria aurkeztua izan (izan ere, Durangoko Erregimenduan hainbat kargu bete zuen aurreko urtetan: Alkatetza bera ere 1611.ean eta 1615.ean), Otalorak “sucio morisco” deitu omen zion. Egia esan, Juan Abad de Orozqueta elizgizonaren onartutako semea zen.

(65) Jakina: Orozquetak kargua hartu ahal izan zuen, Guitsasak 100.000 marauritako isuna eta urtebete erdiko erbestaldia jaso zuen bitartean Kantzelaritzan. V.E.K.A.: B.E.: 956. p.s., 1. znbk. eta atal bereko 957. p.s., 1. znbk.

(66) Bortxaketak, erahilketa saialdiak edota elizgizonen kontrako jipoiak leporatzen zitzaizkion.

(67) Mehatxua handik gutxira beteko zuen, Juan de Múxica Alkateari aginte-makila apur-tu ziola.

(68) V.E.K.A.: B.E.: 1318. p.s., 8. znbk. eta atal bereko 1342. p.s. 2. znbk.

Gutxitan izanda ere, bestelako legezko eskakizunak erabili ziren hautagaiak Erregimendutik baztertzeko. Juan de Zaraa iskribauak Markinako Sindikoa izateko Melchor de Lobianoren aukeraketa bertan behera utzi zuen 1629. urtean, hautagaia Juan de Lobiano elizgizonaren seme naturala izateagatik. Salaketa ez zen funtsarik gabekoa: Lobianok ez zuen kargu publikoak betetzeko erret baimenik izan 1631. urtera arte<sup>69</sup>. Hala ere, Zaraa anaiek azpijokoen bidez iskribautza burdina eta gariaren espekulazioarekin edota Otxandioko harategietako horniketarekin tartekatzeagatik pairatu zuten salaketek ere zerikusia izan zuten, nonbait<sup>70</sup>.

Gertakizun honek burdinaren salerosketak zirela kausa Otxandion izandako enfrontamenduetara garamatza. Hiribilduak Juan de Zaraa salatu zuen 1626.eko Martxoak 23ko Erregimendu Orokorrerako Dionisio Martínez de Abendaño Erregidorearen aldeko ahalmena idaztera errefusatu izanagatik. Horren ordeztu, bere anaia zen Domingoren alde iskribatu zuen, nahiz eta hau azkenik bileran ez azaldu<sup>71</sup>. Era berean, honek Otxandioko Alkatea zen Pedro de Anteparalucetaren kontrako iskanbiletan hartu zuen parte.

### 3. Lur Laua

Lur Lauaren antolaketa juridikoa sinpleagoa zen. Izan ere, Foruzaleatasunaren arabera baino ez zen arautzen. Udalerriko gobernua lagun bakarraz edota, gehienez, bi kidez osatutako Fielak ditugu. Kargu honen erakargarritasuna ez zen Alkatearena bezain handia izaten: eginkizun gutxiago izateaz gain, oso kasu zehatzetan baino ez zegokiolako lehen mailako epaiketak ezagutzea<sup>72</sup>. Orokorrean, beraz, gatazka gutxiago izan ziren Fiela izateko

---

(69) Dena dela, Lobianok kargu publikoak bete zituen aldeztu aurretik. 1637.eko Martxoak 6ko Presidente eta Entzuleen sententziari esker hautaketaren baliogarritasuna finkatu zen (V.E.K.A.: B.E.: 365. p.s., 3. znbk). Edozelan ere, beste erret aginduren baten bitartez, ezgaitua izan zen berriz ere etorkizunari begira. Parekotasunik ba omen dago Miguel de Ituarteren bazterketarekin, 1623. urtean, ezkondu gabe, emakume batekin elkarrekin bizitzeagatik (M.U.A.H.: 4. Erreg. 12. znbk. eta 18. znbk.).

(70) V.E.K.A.: B.E.: 322. p.s., 7. znbk. eta atal bereko 1016. p.s., 1. znbk. eta 1369. p.s., 3. znbk. Hurrengo informazioa iturri hautatik dator.

(71) 1626.eko Martxoak 29ko Hiribilduetako Erregimenduan 100 errealeto isuna jarri zitzaion Otxandiori aurrez ageri ez izanagatik.

(72) 1526. urteko Bizkaiko Foruaren Bigarren Tituluko Laugarren Legean zehazten dira.

lehan. Jakina, ez dut nekazal mundua idealizatu nahi. Lur Lauan oso egoera ezberdinak ziren. Hiribildu zein komunikabideetako hurbiltasunak (gehigarrien bideratzaileak edota jurisdikzioa salbuestekoak) enfrentamenduak sortarazi zituen, nola baita burdinezko edota mendietako baliabideen ustiapenak ere (are gehiago errentetako murrizketa izan zeneko aldian). Guzti honen amankomunezko puntua zera da: alor gehienek merkatal edukinaren bat daukatela.

Kargua betetzeko maizterrik ez izateko exigentzia –hainbat udalerritan, garai hartan behintzat, auzokide gehienek betetzen zuten eskakizuna– neurri pragmatikoa zen guztiz. Alde batetik, eginkizunak behar bezala betetzeko prestakuntza oneneko taldea zelako. Izan ere, Fiela izatea zama astuna bilaka zitekeen auzokide batzuentzat etengabe eguneroko betebeharrak alde batera utzi behar izatekotan. Bestalde, gutxienezko gaitasun ekonomikoa –kanpoan gelditutakoen komenigarritasunak berak ezarritako muga ez gainditzekotan, noski– kudeaketa egokiaren bermea izatearren. Derioko Loaga baserriko maizterra zen Iñigo de Dañobeitiak Fiela izatea betebeharrak ezatsegin zuten eta, errentaria izatearen argudioaz baliatuz, Fiela ez izateko aldarrikapena Kantzelariataraino eramanez 1591. urtean. Gainerako auzokideek, dirudienez, kargua onartzera behartzen zuten. Egia esan, argumentua aitzakia baino ez zen: Dañobeitia bizi zeneko etxebizitza Mungia Hiribilduan auzoturik zegoela, sakoneko eztabaidagaia udal sutegi-banaketetako ordainketa zen<sup>73</sup>. Edozelan ere, dagokigun garaiak Aitzinako Erregimena amaierako milakoen inguruan sortutako literaturarekin zerikusirik ez zuten, nonbait<sup>74</sup>. Kasu bitxi honek, bestalde, era anitzezkoa izandako Lur Laua eta Hiribilduen elkarren kontrako enfrentamenduaren testuinguruan jartzen gaitu.

Ereñoako Elizatea horren lekuko dugu. Bertako Udalbatzak baliogabetu zuten Gernikan auzoturiko etxebizitzaren baten jabea zen San Juan de Narea

(73) V.E.K.A.: B.E.: 1290. p.s., 11. znbk. Baliteke antzekoa gertatu izana Foruan 1636.ean. Han Domingo de Uribe Boliialdea hargina ez zuten Fiela izateko onartu sutegi-banaketetako ordainketa osokoa ez izateagatik eta, bidebatez, ezkontuta ez egoteagatik. 1634.eko Abuztuak 10ean Elizateak lortutako agiriaren bidez, kaparetasunik gabekoak, kanpotarrak edota apaizen ondorengoak Fiel izendatzea debekatzen zen (A.I. PRADO ANTÚNEZ: 1997, 134-135). Gainera, 1610.eko sutegi-eroldaren arabera, Foruako sutegi-banaketetako diru kopuru erdiko etxebizitzetan “en algunas temporadas solian y suelen estar ynabitables, por no aber quien en ellas biba y more”.

(74) Besteak beste, A. OTAZU Y LLANA (1973: 355-375), E. FERNÁNDEZ DE PINEDO (1974: 354-356) edota C. MARTÍNEZ GORRIARÁN (1993: 146). Lehenbizikoak eta azkenengoak Gordexolaren kasua erabiltzen dute Bizkaiko egoeraren berri emateko. Adibide horren baliogarritasuna zein den galdetu beharra dago.

1602. urterako Fiel aukeratzea<sup>75</sup>. Nareak auzoturikoak Elizatearen sutegi-banaketak ordaintzera beharturik zeudela argudiatzen zuen<sup>76</sup>. Elizateak, berriz, udal ondasunak oso handiak zirela gogoraraziz, auzoturikoak onartzerik ez zegoela errepikatzen zuen, Ereñorekin zerikusirik ez zuen Gernikako Hiribilduaren jurisdikzioaren menpe egotearren. Azkenik, hauxe izan omen zen argumenturik erabakiorra Narearen aldarrikapena ez onartzeko<sup>77</sup>.

Arazo berbera ageri zen Amorebietan 1571.ean. Urte hartan auzokide infanzoi eta Dudea eta Boroa auzoetako nekazari zentsarien elkarren kontrako auzia hasi zen, lehenbizikoez bigarrenak baztertu nahi zituztelako kargu publikoetatik<sup>78</sup>. Azkenengo hauek usarioaz baliatu ziren karguak bi elkarteren artean urtero tartekatzen zirela ohartarazteko. Infanzoiak, berriz, antzinatasun eta ohoerzko karguetarako prestutasun handiagoak zituztela erakutsi nahi zuten zergarik ez zutela ordaintzen gogora ekarriz (egia esan, beraien helburua bi elkarteen bereizketa baino ez zen). Azkenik, auzoetako argumentuak nagusitu ziren<sup>79</sup>.

Auzi hau, azken batez, infanzoiaren harropuzkeriagatik izan zen. 1558.ean Francisco de Susuneguiaren behin behineko hautagaia baliogabetua izan zen burdindegia izatearren. 1560.ean beste horrenbeste gertatu zen San Juan de Alcaibarrekin, errota eta labea izatearren<sup>80</sup>. Nahiz eta bi kide hauek baztertzeko argumentua ukaezinezkoa den justiziaren ikuskaritzarena izan, biak zentsariak izanik, sakoneko beste arrazoirik ez egotea nekez onar daiteke.

---

(75) V.E.K.A.: B.E.: 200. p.s., 3. znbk. Narea ez zen nabarmendu jarrera zintzoagatik. Aukeratu izan zen Fiel titular baten absentzia aprobetxatuz. Gainera, izendapena iskrubau baten aurrean eta isilean gauzatu zen, Udaltzatzen aurrean egin ezean.

(76) Honela adierazten zuen:

“...porque por ser así los sobredichos señores y poseedores de unas y otras de las dichas casas an contribuido y contribuyen y gualmente en todas las derramas y rrepartimientos que se abía hecho en la dicha anteyglesia, y pues que participaban en las dichas cargas deben tambien gozar de los honores.”

(77) Presidente eta Entzuleen 1602.eko Uztailak 30eko sententziak aurrekoak berretsi zituen.

(78) V.E.K.A.: B.E.: 659. p.s., 3. znbk. eta atal bereko 1329. p.s., 24. znbk. Eztatanda Andra Mari Elizako Maiordomoaren izendapenagatik hasi eta gainerako karguetara zabaldu zen.

(79) 1572.eko Uztailak 24ko Kantzelaritzako Presidente eta Entzuleen sententziak kargu publikoak tartekatzea erabaki zuen, kargudunik inork oztopatzea debekatuz. V.E.K.A.: B.E.: 1329. p.s., 24. znbk.

(80) V.E.K.A.: B.E.: 1312. p.s., 2. znbk.

Zeberion ere antzeko zerbait suertatu zen. Dena dela, kasu hartan arazo konplexuagoa izan zen, bestelako tirabirekin nahasiz. Hauteskundeetako arautegiari jaramonik egin gabe, Juan Hernani de Areilza *txikia* infantzoien Fiela izan zen 1620 eta 1621.ean. Hurrengo urteari begira, Korregimenduaren Auzitegian ezarritako salaketen eraginez, aginte-makila utzi zuen, baina aitari eman zion. Nepotismoaz batera bestelako irregulartasunak ere baziren: Hernani de Areilza familia auziak mantentzen ari zen Udalerriaren aurka jurisdikzioa, udal mendietako ustiapena edota zentsuren baten ordainketagatik<sup>81</sup>. Are gehiago: elkarteak jukutria hura salatu ez izana azpijokoa justifikatzeko balio izan zuen. Gutxienez hala sinestarazi nahi zen:

“...los fieles biejos no tienen ningun poder para elixir, sino todo el pueblo, y así, aunque ellos proponen a los que les parece, el pueblo escoje, elixe y nonbra, y no los fieles”<sup>82</sup>.

Argumentu hura ganorarik gabekoa zen. Hernani de Areilza olagizonezko familia ezaguna zen haranan. Izan ere, hauteskundeak baliogabetzeko eskakizuna Martín de Gotik exigitu zuen, Pedro de Gotik Arbilduko burdinola zela kausa aurrekoen kontrako auzia zeukalarik<sup>83</sup>. Eztabaida honen azpian infantzoi eta patroien elkarren kontrako norgehiagoka zegoen, azkenengo hauek lehenbizikoen lur sailak ikuskatzeko asmoa izatearren. Hernani de Areilza infantzoien defentsan ari zen<sup>84</sup>.

Begoñako Elizatean ere infantzoi eta auzoturikoen elkarren aurkako lehia izan zen. XVI. mendeko erdialdean lehenbizikoek azkenengoak Elizateko Fiela izaten oztopatu zituzten, nahitanahiezko protesta eragin zutela. Arazo hau bertako patroia zen Gregorio Gómez de Begoñak eta Tristán de Leguizamón Bilboko Prebosteak elkarren aurka Begoñako hamarrenak zirela medio mantentzen zutenarekin<sup>85</sup> nahasiko zen. Bata ganboatarra eta bestea oinaztarra izanik, 1555.ean Prebosteari bi banduen arteko ezinbesteko oreka desegin izana

(81) B.F.A.A.: A.J.: Korr.: 1368. p.s., 31. znbk.

(82) V.E.K.A.: B.E.: 1355. p.s., 9. znbk.

(83) B.F.A.A.: A.J.: Korr.: 1368. p.s., 37. znbk. Juan Hernani de Arbildu eta Martín Pérez de Leguinaeche Erregidoreek, burdigintzan interesak izanik, hautaketa bertan behera uzteari muzin egin zioten.

(84) Izan ere, Hernani de Areilzak 1620.eko Uztailak 28ko Batzar Nagusietan Jaureriak infantzoien kausa bere gain har zezan lortu zuen.

(85) Gai honen inguruko auzietarako A.E. MAÑARICUA (1950: 247-252).

leporatu zitzaion<sup>86</sup>. Bilbon edota Jaurrerian bertan garai berean gertatu zen bezala<sup>87</sup>, akusazio honen ondorioz Hauteskundeetako Ordenantzak eraldatu ziren, bi taldeen arteko parekotasuna –bi elkarteen artekoa, alegia– arautzeko. Aldiberean, kargudunak betiko ez zitezen, bi Fielen hautesleak ez ziren aurreko kargudunak bakarrik izango, baizik eta urtero Udalbatzan aukeratutako beste bi kidek ere hartuko zuten parte. Dena dela, prozedura txarto ibiliko zen hasiera-hasieratik eta 1556.eko hauteskundeetan bertan protestak izan ziren balizko irregulartasunengatik.

Erandion 1619.ean Pedro de Urasandi Juan Ortiz de Asua bertako Fiela izan zedin ahaleginu zen, bigarren honek errefusatu zuelarik<sup>88</sup>. Ez da harritzekoa: zalantzarik gabe, errota eta ostatuak ikuskatzea, bideak konpontzea, posturak betearaztea, edota zergak jasotzea ez ziren Ortiz de Asuaren gustoko eginkizunak izango<sup>89</sup>. Abandon, berriz, Lope de Basurto Achak 600 dukatetik gora galdu omen zuen Elizateko Fiela zela<sup>90</sup>.

Bilboko inguruneko Elizateek Bizkaiko nekazal udalerrien artean hainbat berezitasun erakusten dute<sup>91</sup>. Hiribilduaren eraginez, Elizate hauek gainerako guztiak baino gatazka maila nabariagoak izan zituzten. Bilboko talde zuzentzailea, Elizateetako hainbat kideren laguntzaz, interes partikularrak inguruko lurraldean inposatzen saiatu zen. Nekazal elkarrekin, berriz, eutsi zioten. Jurisdikzioko mugapenak, elikagaietako hornikuntza edota tokian tokiko erakundeetako ordezkartza izan ziren, besteak beste, gatazketako iturburuak<sup>92</sup>. 1600. urtean, adibidez, Bizkaiko Jaurreriak Abandoko Fielaren izendapena

(86) V.E.K.A.: B.E.: 781. p.s., 3. znbk.

(87) Kasu hartan bezala, honako honetan erabilitako argumentua Tristán de Leguizamónek jarraitzaile gehiago izatea dugu.

(88) B.F.A.A.: B.A.: Vill.: 47. L., 1. Erreg., 3. znbk. Cf. V.E.K.A.: B.E.: 293. p.s., 7. znbk.

(89) Hala ere, bi kide hauek elkarren aurka aritu ziren 1624.eko Abuztuak 6ko Batzar Nagusietan Sondika ordezkatzeko (bertan Gobernu berria aukeratuko zen eta).

(90) B.F.A.A.: B.A.: Vill.: 40. L., 9. Erreg., 11. znbk. (1629.eko Uztailak 8ko kodiziloa). Jakina, aldeztu aurretik –1617.eko Apirilak 12ko Batzar Nagusietan, hain zuzen ere– Basurtok Jaurreriaren laguntza lortu zuen sortetxeko jurisdikzioa zela kausa Bilboko Hiribilduaren kontra mantentzen zuen auzian.

(91) Beste Hiribilduen inguruan kokatutako Elizateetan antzeko borroka motak sortarazi ez zirenik ez dut esan nahi. Baina Bilboren tamaina aparta zela medio, adierazbiderik larrienak bertan izan omen ziren. Jurisdikzioari buruzko auzi batzuetako, G. MONREAL CÍA (1974: 99-125).

(92) T. GUIARD (1906: II, 224-257).



baliogabetu zuen, aukeratutako Juan de Larrea Bilboko Udalaren soldatapekoa izatearren<sup>93</sup>. Elizateetan etxebizitzetako jabe bilbotarrek laster ekingo zioten bertako karguak bereganatzeari, maizterrak baztertuz (Begoñan 1630.ean geratutako zen<sup>94</sup>, Abandon 1646.ean izan zen bitartean)<sup>95</sup>.

#### 4. Ondorioak

Bizkaiko Hiribilduak eremu gatazkatsuak ziren. Orokorrean, aurkakotasunezko adierazbiderik gehienak prozesu bikoitzaren ondoriozkoak izan ziren. Alde batetik, maila sozioekonomiko zein profesional baxuagoko taldeen bazterketa (artisansuak, kanpotarrak, etab.). Bestetik, talde zuzentzailearen hainbat lagunen kanporaketa, barne kontraesanen eraginez (hau da, baliabideak kontrolatzeko lehiak behartuta). Bilboren kronologia Bizkaiko beste Hiribilduetan ere baliogarria izatekotan<sup>96</sup>, XVI. mendeko bigarren erdialdean pixkanaka-pixkanaka eredia finkatuz joan zen. Tokian tokiko bazterketa prozesuak kargu eta ohoretako eskariaren gorakadaren berri ematen du. Erregimenduak gainezka baldin baziren, hurrengo maila Jaurerriko Gobernua zen, garai hartan Hiribildu guztientzat –legez behintzat– erabat itxita. Testuinguru honetan ulertu behar dira Lur Lauarekiko batuketa lortzeko lehenbiziko ahaleginak, porrotatuak izan arren.

Edozelan ere, Hiribilduetako gatazkak mailakatu behar dira, guztietan ez zirelako enfrentamendu mota berberak izan. Gainera, Hiribilduak ez ziren iskanbilak sufritutako gune bakarrak izan. Neurritz eta, batez ere, eginkizun ekonomikoen arabera, Bizkaiko Hiribilduen artean maila ezberdinak daude. Mutur batetan Iberiar Penintsulako iparraldeko portu nagusienetarikoa izandako Bilbo dugu; kontrakoan, berriz, nekazal ihardueretako guneak, Errigoitia edota Gerrikaitz bezala. Bestalde, oligarkizapen prozesuaren mugapenak kontutan hartzekoak dira, kasu zehatz batzutan izan ezik, oraingoz ez zelako eska-

(93) 1600.eko Apirilak 15eko Erregimendu Orokorra. Gainera, irregulartasunak izan omen ziren hautatzeko prozeduran.

(94) B.F.A.A.: U.A.: Bilbo, A.A.: 38.1.21; edota B.F.A.A.: U.A.: Begoña: 8. p.s., 49. znbk.

(95) F. MARTÍNEZ RUEDA (1994: 74).

(96) Durango edo Balmaseda bezalako Hiribildu esanguratsu batzuk hala erakusten dute. Prozesu hau Gipuzkoaren kasuan idazlan ezberdinetan da aztergai. Cf. J.J. MADARIAGA ORBEA (1979: 536-537), F.B. AGUINAGALDE (1982/83: 314-315), J.A. ACHÓN INSAUSTI (1995: 199-202), X. ALBERDI LONBIDE y A. ARAGÓN RUANO (1995: 307-310) edota S. TRUCHUELO GARCÍA (1997: 80).

kizun ekonomikoa errotu. Agintarien gehiegikerien aurrean erresistentzia entzun ahal izan zen. Arazo honek ez omen zuen garai hartan Aitzin Erregimenaren amaieran izango zuen bezainbesteko larritasunik izan<sup>97</sup>. Geroago ez bezala, Udalbatza tinkotasunez mantendu zen. Edozelan ere, gatazka mota guzti hauek Hiribildu eta Lur Lauaren arteko lurraldearen bikoiztasuna isladatzen zuten, lehen instantziako auziak epaitzea edota merkatal baliabideak kudeatzea, batez ere, Hiribilduei zegokielako.

Elizateetan karguak eskuratzeko gatazka gutxiago izan ziren, orokorrean, Hiribilduetakoak bezain erakargarriak ez izatearren. Hala ere, Hiribilduen eraginez, antzeko arazoak izan zituzten sarritan. Hiribildu guztiak parekatzerik ez dagoen bezala, Elizateen artean ere ezberdintasunak daude. Batzuk, ustez, nekazal munduari ez zegokizkion ezaugarriak bereganatu zituzten. Dena dela, alor sozioekonomiko eta jurisdikzionalaren arteko ezoreka honek ez digu garai hartan Bizkaiko Jaureriaren barneko dialektikarik nagusiena izandako Lur Laua eta Hiribilduetako egitura kontrajarrien aurrez aurreko lehia izkutatatu behar.

## 5. Inprimaturiko iturriak eta bibliografia

- ACHÓN INSAUSTI, J.A. (1995): “A voz de concejo”. *Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa: los Báñez y Mondragón, siglos XIII-XVI* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia
- AGUINAGALDE, F.B. (1982/83): “Notas sobre los niveles estamentales más elevados en la estratificación social en Guipúzcoa en 1450-1550” In *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* 16/17 (1), 304-340. orr.
- AJURIA ASTOREKA, F. (1998): *Formación de clase y factor político. El Gobierno de la Villa de Durango en la primera mitad del siglo XVII* Durango: Arte eta Historia Museoa
- ALBERDI LONBIDE, X. y ARAGÓN RUANO, A. (1995): “La pervivencia de los parientes mayores en el poder político local de Gipuzkoa durante el período 1511-1550” In ORELLA UNZUÉ, J.L. y GÓMEZ PIÑEIRO, J.L. (Dirs.): *Las Juntas en la formación de Gipuzkoa hasta 1550* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia-Batzar Nagusiak, 287-312. orr.
- CIFUENTES PAZOS, J.M. (1994): *Perfil histórico de la villa de Ugao-Miravalles* Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia

---

(97) Ik. F. MARTÍNEZ RUEDA (1994: 28-38).

- CIRIQUAIN GAIZTARRO, M. (1942): *Monografía histórica de la noble villa y puerto de Portugalete* Bilbo: Bizkaiko Kultura Batzordea
- CLAVERO SALVADOR, B. (1986): *Tantas personas como estados. Por una Antropología política de la historia europea* Madril: Tecnos
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974): *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco (1100-1850)* Madril: Siglo XXI
- GÓMEZ PRIETO, J. (1991): *Balmaseda siglos XVI-XIX. Una villa vizcaína en el Antiguo Régimen* Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia
- GUIARD, T. (1906): *Historia de la Noble Villa de Bilbao. Tomo II* Bilbo: L.G.E.V (1971.eko berrargitalpena)
- HESPANHA, A.M. (1989): *Vísperas de Leviatán. Instituciones y poder político (Portugal, siglo XVII)* Madril: Taurus
- LARRACOECHA BENGOA, J.M.<sup>a</sup> (1989): *Notas históricas de la Villa de Durango. Tomo IV* Durango: Kurutzeaga
- LÓPEZ ATXURRA, R. (1991): “La foralidad en la historiografía vasca” In *Ernaroa* 6, 117-170. orr.
- MADARIAGA ORBEA, J.J. (1979): “Municipio y vida municipal vasca de los siglos XVI al XVIII” In *Hispania* 143, 507-557. orr.
- MAÑARICUA, A.E. (1950): *Santa María de Begoña en la historia espiritual de Vizcaya* Bilbo: La Editorial Vizcaína
- MARTÍNEZ GORRIARÁN, C. (1993): *Casa, Provincia, Rey (Para una historia de la cultura del poder en el País Vasco)* Irun: Alberdania
- MARTÍNEZ RUEDA, F. (1994): *Los Poderes Locales en Vizcaya. Del Antiguo Régimen a la Revolución Liberal (1700-1853)* Bilbo: E.H.U.-U.P.V.
- MARTÍNEZ RUEDA, F. y RAMOS MARTÍN, F. (1990): “El poder municipal de la villa de Otxandio en el Antiguo Régimen” In *Eusko Ikaskuntza. Ataleko Koadernoak. Historia-Geografía* 15, 135-150. orr.
- MONREAL CÍA, G. (1974): *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el Siglo XVIII)* Bilbo: Bizkaiko Aldundia
- OTAZU Y LLANA, A. (1973): *El ‘igualitarismo’ vasco: mito y realidad* Donostia: Txertoa
- PÉREZ GOIKOETXEA, E. (1993): *Estudio histórico-artístico de la villa de Rigoitia* Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia
- PRADO ANTÚNEZ, A.I. (1997): *Forua-Murueta. Estudio histórico-artístico* Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia

- SALAZAR ARECHALDE, J.I. (1990): “El Regimiento de la Ciudad de Orduña durante el Antiguo Régimen” In *Eusko Ikaskuntza. Ataleko Koadernoak. Historia-Geografia* 15, 77-95. orr.
- TRUCHUELO GARCÍA, S. (1997): *La representación de las corporaciones locales en el entramado político provincial (siglos XVI-XVIII)* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia
- ZABALA MONTOYA, M. (2001): *Conflictividad y recomposición socio-institucional en Bizkaia en el contexto de la época de las alteraciones* Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (argitaragabeko tesia)

## 6. Laburdurak

- A.J.: B.T.: Atal Judiziala: Busturiako Korregimenduko Tenentzia  
A.J.: Korr.: Atal Judiziala: Bizkaiko Korregimendua  
B.A.: Vill.: Bestelakoetako Atala: Villarías  
B.A.H.P.: Bizkaiko Artxibategi Historiko Probintziala  
B.E.: Bizkaiko Entzutegia  
B.E.S.: Bizkaiko Entzutegiko Sententziak  
B.F.A.A.: Bizkaiko Foru Aldundiko Artxibategia  
Bilbo, A.A.: Bilbo, Aitzinako Atala  
Erreg.: Erregistro  
G.P.: Gernikako Protokoloak  
Isk.: Iskribau  
K.: Kutxa  
L.: Liburua  
M.U.A.H.: Markina-Xemeingo Udal Artxibategi Historikoa  
N.A.: Notal Atala  
p.s.: Paper sorta  
U.A.: Udal Atala  
V.E.K.A.: Valladolidgo Erret Kantzelaritzako Artxibategia  
znbk.: Zenbakia